

# B

BARREN

TOKIKOM

## **“Eleaniztasuna ikertzeko primerako laborategia da Gipuzkoa**

**Miguel Arozena**







# TEXTIL HOGAR - LAGUNAK

**BISITATU GURE ERAKUSKETA,  
HARRITUKO ZAITUGU.  
LAGUNAK GURE DENDAK  
BERRIZTATZEN JARRAITZEN DU.  
Armairuak, arropategia, armairu-barrua...**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



# ZEZEN-BIDE



## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

### LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kredituxarekin ordaintzeko erraztasunak

## Abortuaren lege berriarekin pauso bat aurrera

Astelehenean martxoak 8a izan zen: Emakumeen Nazioarteko Eguna. Gaur egun, 2010ean, egun hau ospatzen jarraitzen dugu. Gezurra badirudi ere, oraindik ere, bizitzako hainbat arlotan baztertuta eta zapalduta jarraitzen dugu emakumeok, emakume izateagatik. Adibide argi bat: gure gorputza eta sexualitatea.

Zorionez, batzuetan pausok aurrerantz ematen dira, begira bestela abortuaren lege berriari. Lege berri horrekin Euskal Autonomi Erkidegoan 16 urtetik gorako emakume guztiek legez abortatu ahal izango dute, era seguru eta osasuntsu batean. 16 eta 17 urte bitarteko neskek euren familiei edo arduradunei esan beharko diete, beti ere horren ondorioz indarkeria, mehatxuak, tratu txarrak eta abar jasango ez badute.

2010ean, behingoz, planifikatu gabeko haurdunaldi batengatik ez dugu delitu bat bete beharko haurrik izan gabe gure bizitza egiteko; behingoz gure gorputzaren eta amatasunaren jabe izango gara. Bai emakumeok eta baita Haurdunaldiaren Borondatezko Etenaldiak (HBE) praktikatzan dituzten sendagileek ere askatasunez erabaki ahal izango dugu. Benetan albiste pozgarria da hau.

Hala eta guztiz ere, hori ez da gure helburua. Abortua legeztatu izana albiste on bat da, behar izanez gero abortatu ahal izateko aukera ematen digulako, baina abortuak praktikatu behar izatea ez da batere albiste ona. Abortatzea erabakitzen duten neskek, orokorrean, nahiko gaizki pasatzen dute. Batzuek laguntza psikologikoa behar izaten dute, baina horrez gain, abortua planifikatu gabeko haurdunaldirako irtenbide bat da, baina ez ditu sexu transmisioko infekzioak ekiditen.

Beraz, egin dezagun benetako prebentzio bat. Sustatu dezagun berdintasunean eta korresponsabilitatean oinarritutako sexu-heziketa, eta ez ditugu abortuaren aldeko legeak behar izango.


Eider Goiburu



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Oraindik ere, bizitzako hainbat arlotan baztertuta eta zapalduta jarraitzen dugu emakumeok”**

Lanbroa



Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak

Asteleheneetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.  
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia · Estetika · Solarium-a



# Idama



Otsaileko irabazlea:

ANA  
UNCILLA

Martxoako saria:

MANIKURA,  
GELEZ  
ESMALTATUA

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26



# MIGUEL ARozENA

BCBLko MANAGER NAGUSIA

**“Hizketan nola ikasten dugun eta zahartzaroan gaitasun hori nola galtzen den aztertuko dugu”**

Hizkuntza da gure arrazaren bereizgarri nagusietako bat, eta Donostiako Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL) izeneko ikerketa zentroan horixe aztertzen dute, gure garunean izaten diren lotura neuronalak ikeritzeko. “Hizkuntza nola sortzen eta prozesatzen dugun aztertzen dugu”, azaldu digu Miguel Arozenak, BCBLko manager nagusiak. 2008. urte amaieran sortu zen BCBL, Ikerbasque fundazioaren ekimenez. Urtebeteko prestakuntzen ostean, urtarrilean hasi ziren lanean. Aurten, 45 langile izango dira, horietatik, hamar, iker-tzaileak.



## Zer ikertzen duzue BCBLn?

Neurozientzietako oinarritzko ikerketa egingo dugu, batez ere hizkuntzetan oinarrituta. Hizkuntza edo lengoaia bat nola sortzen, ulertzen eta prozesatzen dugun aztertuko dugu. Orain egiten ari garen hau, esaterako. Hitz egiten ari naizela nire burua lanean ari da, eta baita zurea ere, nik esaten ditudan hitz hauek ulertzeko. Halakoetan buruan zer gertatzen den ikertuko dugu. Hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko arazoak dituzten haurren buruan

zer gertatzen den ere ikusiko dugu, eta baita zahartzaroan edo gaixotasun neurodegeneratiboen kasuan zer gertatzen den ere, adibidez. Hau da, hitz egiteko gaitasuna nola galtzen den.

## Linguistikarekin edo osasunarekin dute lotura handiagoa zuen ikerketek?

Osasunarekin. Oinarritzko ikerketa guztien helburua gaixotasun bat sendatzeko bidean aurrera egitea da. Ez derrigorrez gaitz hori sendatzea, baina bai sendatzeko bidean

pausoak ematea. Ezin zaiolako alzhemerrari sendabidea topatu, buruak zelan lan egiten duen jakin gabe. Badakigu alzhemerra izatearen ondorio nagusia oroimena galtzea dela, baina horrezaz gain, hitz egiteko ere arazoak izaten dituzte gaixoek. Hitz egiten ere ahazten zaie. Beraz, hizkuntza bat nola galtzen den ikusita, jakin daiteke alzhemerra nola garatzen den.

## Zeintzuk bitarteko dituzue horretarako?

Punta-puntako makina batzuk erosi ditugu,

erresonantzietarakoa, esaterako. Makina hori sekulakoa da. Euskal Herrian ez dago horren pareko erresoluzioa daukan besterik. Burmuinaren egitura aztertzen du. Eredu magnetiko batzuei esker, garunean halako ebaki moduko batzuk egiten ditu, burmuinean zer dugun ikusteko. Ebaki horretako batean puntutxo bat markatzen dugu, eta horko lotura neuronal guztiak ikusten ditugu, puntu horretara iristen direnak eta baita puntu horretatik iristen direnak ere. Momentu jakin batean zer aktibatu den ikustea da kontua.

**Ikerketa alor asko lantzen dituzue, baina akaso, umeei dagokiena da deigarriena.**

Seguru. Gure ikerketa alorretako bat da. Hiru hilabetetik 2 urte ingurura arteko umeak hizkuntza bat jasotzen ari dira uneoro, eta haien burmuinetan gertatzen diren konexio neuronalak aztertuko ditugu. Ez dute hitz egiten, baina hitzen, irudien eta soinuen aurrean erreakzionatzen dute. Makina jakin batzuei esker, euren buruak aztertuko ditugu. Hau da, gauza jakin batzuen aurrean nola erreakzionatzen duten ikertuko dugu, eta baita beste zenbait gauzen aurrean zergatik ez duten erreakzionatzen ere.

**Zelan lan egiten duzue 'baby lab' edo haurren laborategi horretan?**

*Baby lab*-a da gure zentroko gauzarik ikusgarriena askorentzat. Bafle eta pantaila handi batzuk ditugu gela horretan. Gurera etortzen diren ume gehienak guraso elebidunen seme-alabak dira, Gipuzkoa orohar oso elebiduna delako. Hala, ume horiei euskaraz ari den emakume bat jarriko diegu pantailatiko batean, eta gaztelaniaz ari dena, beste batean. Modu horretan ikusiko dugu zeini begiratzeko dion umeak. Gauza bera egingo dugu marrazkiekin. Auto bat jartzen diegu, eta "auto" edo "coche" esandakoan erreakzionatzen duten ikusten dugu. Tarte horretan, umeen begietara begira jartzen dugu beste makina bat, irisa nola mugitzen duten ikusteko.

**Eleaniztasunak zeresan handia eman du gurean. Jauriaritzak, adibidez, ume-umetatik ingelesa sartzeko apustua egin berri du. Teoriak ere asko dira. Hizkuntza bat ondo ikasten duenak gainerakoak ikasteko erraztasun handiagoa duela ere esaten da. Zer diozue zuek honen inguruan?**

Momentuz egiten ari garenak ez dauka lotura zuzenik horrekin. Politia izango litzateke aldi berean hiru hizkuntza jasotzen dituzten

umeen konexio neuronalak bi hizkuntza jaso dituztenen haurrekin alderatzea, baina gu ez gara horretara iritsi. Nolanahi ere, egia da eleantiztasunarena gure ikerketa arloetako bat dela. Gipuzkoan ikerketa asko eta onak egin daitezke, euren artean oso ezberdinak diren bi hizkuntza hitz egiten dituelako jende askok. Hala, eleantiztasuna ikertzeko primerako laborategia da Gipuzkoa.

**Zelan da orain eskuartean darabilzuen proiektua?**

Sei ikerketa lan dauzkagu hasita, eta Coeduca proiektua da horietako bat. Espainiako Zientzia eta Ikerketa Ministerioaren programa bat da, eta neurozientziak hezkuntzari egin diezaiokeen ekarpena aztertzean datza. Horretarako, 8.000 ikasle aztertuko ditugu guztira, 2.000 bat Gipuzkoan. Ume horien artean ziur gara dislexia, hiperaktibitatea edota atentzio falta moduko alterazioak dituztenak ere agertuko direla, eta aztertuko dugu ume horien ikasteko gaitasuna zelan hobetzen den. Horretarako, adierazgailu kognitiboak, genetikoak eta soziokulturalak hartuko ditugu kontuan.

## “Ikerketari lagunduko dion jendea behar dugu, eta beldurrik gabe etorri”

**Zelan egiten da hori?**

Adimen testak egingo dizkiegu, eta baita guk geuk sortutako proba batzuk ere, irudiak eta hitzak zelan uztartzen dituzten neurtzeko. 35 lagun ariko dira horretan. Listua ere hartuko diegu, eta hori CIC Biogunera bidaliko dugu, adierazgailu genetikoak aztertzeko. Hori guztia etika batzorde batek gainbegiratu du, eta, jakina, datu horiek geuretzat gordeko ditugu. Hori guztia eginda jakingo dugu genetikak zenbateko eragina izaten duen gaixotasunak garatzeko orduan. Izan ere, gaur egun ez dakigu adibidez dislexia jaiotzetiko kontu bat den, edo gerora sortutako alterazioen baten ondorioa den.

**Horretarako jende bila ari zarete. Erraza da ikerketa lagunduko duen jendea topatzea?**

Hemen ez zaigu erraza egiten ari. Espainian inongo arazorik gabe lortu ditugu boluntario-

ak, baina Gipuzkoan 400 ikasle baino ez ditugu lotu, eta 6 eta 14 urte bitarteko 2.000 bat behar ditugu proiektu baterako. Kostatzen ari zaigu, eta ez dugu ulertzen zergaitik. Izan ere, Hezkuntza Sailak babesten gaitu, eta datuen babeserako legea oso-osoan betetzen dugu. Gainera, gurasoen mesederako azterketa bat da, umeek izan ditzaketan arazoak detektatzeko ere balio duelako. Ikerketari lagunduko dion jendea behar dugu, eta beldurrik gabe etortzeko esango nieke. Hitzordua eskatu eta etorri. Ordaindu egiten dugu, gainera.

**Gerta daiteke azterketa egitera doanetako bati zerbaitekin topatzea azterketa horietako batean. Halakoetan nola jokatzeko duzue?**

Guk ezin dugu ezer esan. Gaixotasun bat detektatuz gero ere, ezin dugu esan, gure etika batzordeak ez digulako baimenik ematen. Gu ez gara medikuak. Hori bai, isilean ere ezin dugu gorde, azken batean pertsona horren osasuna egon daitekeelako jokoan. Guk zerbaitekin arraroa ikusiz gero, familia medikuari bidaltzen diogu informazioa, eta hark erabakiko du gero zer egin.

**Euskal Herriko Unibertsitatea ere zuen bazkide da. Zer nolako harremana duzue?**

Bi puntuko hitzarmena sinatu genuen haiekin: batetik, psikologiako azkeneko urteetako praktikak gurean egiteko, eta, bestetik, 2011ko irailetik aurrera, psikologiako gradu ondoko bat gure ikertzaileek emateko. Horri esker, gure ikerketa esparru hau zabaltzea lortuko dugu. Izan ere, gaur egun ikerketan sakondu nahi duten ikasleek kanpora joan behar izaten dute, hemen ez dagoelako horretarako aukerarik. Guk jende hori hemen nahi dugu, jakin badakigulako ikerketa eta garapena direla etorkizuna.

**Zu zeu nola iritsi zinen BCBLra?**

Ni berez ingeniaria naiz, enpresen kudeaketan espezializatua. Iaz arte, automozioan jardun dut bizitza osoan, zuzendaritza taldean enpresetako baliabideak kudeatzen. Argi neukan, baina, ikerketa, garapena eta berrikuntzaren eskutik datorrela etorkizuna, eta hala, berrikuntza eta ikerketaren munduan sartu nintzen. Gero, osasunaren alorrean lan egiteko aukera ikusi nuen. Indar handia hartzen ari den arloa da, eta proiektu horren aldeko apustua egin nuen. Eta momentuz oso gustura nago.

# EMAKUMEAK eta KRISIA

Astlehenean izan zen Emakumearen Nazioarteko eguna. Han eta hemen, makina bat ekitaldi izan ziren gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eskatzeko. Elgoibarren, beste zenbait ekintzen artean, krisiak emakumeen eta gizonen parekidetasunean daukan eraginari buruzko mahaingurua antolatu zuen Udalak. Axun Larrañaga eta Joxean Egaña Meka eta IMHko zuzendariak, Nekane Jurado ekonomilaria eta Josune Gardoki Lanbideko teknikaria izan ziren hizlariak. Mahainguruaren harira, krisiak emakumengan izan duen eragina landu du **BARRENEK**.

Ainhoa Andonegi



Axun Larrañaga Mekako zuzendaria eta Amaia Ansoa IMHko Heziketa Zikloetako tektikaria.

**M**eka eta IMH dira Elgoibarren lan mundurako prestakuntza ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxe garrantzitsuenak. Axun Larrañaga Mekako zuzendariarekin eta IMHko Edurne Bilbao eta Amaia Ansolarekin egin du berba **BARRENEK**.

Erreminta makinaren sektorearekin oso lotuta daude bi zentruak, eta ondo ezagutzen dute Elgoibarko eta inguruko enpresen egoera. Bi zentruetako ardurdunek adierazi dute krisia badagoela, baina ez dute uste emakumeari kalte handiagoa eragin dionik. Axun Larrañagak esandakoaren arabera, Industria eta eraikuntza jo ditu gogorren krisiak, eta lanpostu horietan emakume gutxiago daude. Edurne Bilbaoren ustez, industria munduan berdin eragin die krisiak emakumeei eta gizonei. Langabeziak gora egin du, baina hemen inguruko enpresetan ez dute uste emakume gehiago kaleratu dituztenik. Hala ere, emakumearen egoera “prekarioa” dela uste dute.

2005etik 2009ra bitartean %45etik %51ra igo da etxetik kanpo lan egiten duten emakumeen kopurua, baina Axun Larrañagaren iritziz, oraindik ere gaizki ordaindutako lanetan dihardu emakumeak: “Emakumea akademikoki gero eta hobeto prestatuago dago, baina lan munduan ez da hori islatzen”. Langabeziak gora egiten jarraitzen du, baina,

eta Axun Larrañaga kezkatuta dago, ez ote diren begiradak emakumengan zentratuko.

Langabeziaren eraginez, IMHn ikastaroen eskaerak nabarmen egin du gora, krisiaren eraginez. Edurne Bilbaok pena du iaz ezin izan ziotelako eskari guztiari aurre egin, eta aurten ere gauza bera gertatuko ote zaien susmoa dauka.

**IMHko Heziketa Zikloetan %7 dira neskak, eta Txandakako ingeniarietan, %11.**

IMHko matrikulazio datuei begiratuta, Heziketa Zikloetan gehiago dira mutilak. 269 ikasletatik 18 (%7) dira neskak. Txandakako Ingeniaritzan gauza bera gertatzen da, %11 besterik ez dira emakumeak. IMHko ardurdunen iritziz, gizartea aldatu behar da, eta horretarako urte asko beharko dira.

Mekan, ordea, 383 ikasletik, 201 dira neskak. Hala ere, emakume gehienek oraindik ere erizaintza, administrazioa edo haur hezikuntza aukeratzen dituzte, eta gizonetakoek automoziorako edo galdaragintzarako joera daukate.

Meka eta IMHko ardurdunek ez dute krisiaren amaierarik ikusten. Edurne Bilbaoren ustez, “krisiak hondoa jo duela dirudi, baina ez da susperraldirik ikusten”. Axun Larrañagak ere 2010a gogorra izango dela uste du, eta krisiaren amaiera ikusteko 2012. urterarte itxaron beharko dugula adierazi du.





## Nekane Jurado

Ekonomilaria

**“Gizonezkoak baino askoz egoera prekariogoa egiten du lan emakumeak”**

**Egunotako datuen arabera, krisiaren eraginez gizonezkoek galdu dute lana, batez ere. Zein irakurketa egiten duzu?**

Datu horiei buruz, gauza asko esan daitezke. Enplegua galdu dutenei buruzko datuak dira, batez ere, behin betiko kontratuak zituztenei buruzkoak. Denboraldi-ko kontratuak dituztenak ez dira datu horietan sartzen, eta emakumeek, batez ere, horrelako kontratuak izaten dituzte. Horrez gain, emakume askok kontraturik gabe egiten dute lan. Emakumeari dagokionean, ezkutuko ekonomia handia dago. Azken datuen arabera, ezkutuko ekonomian dihardutenen %87 inguru emakumeak dira.

**Zein da emakumearen egoera lan munduan?**

Gizonezkoa baino askoz egoera prekariogoa egiten du lan emakumeak. Merkatu ekonomia patriarkala da: Gizonezkoen lanak gizarteratu dira, baina emakumearen eremu pribatura mugatu dira. Orain hasi dira merkaturatzen gizarte lanak, baina oso gutxi ordaintzen diete. Emakumeek %28 gutxiago kobratzen dute, batez beste. Horrez gain, lan egoerak emakumeen osasunean eragin handia dauka. Etxean eta etxetik kanpo lan egiten duten emakumeen artean ohikoak dira estres edota depresio arazoak.

**Emakumeen gaiari lotuta, lana eta enplegua bereizten dituzu.**

Bai, bi termino horiek ekonomian ez dira sinonimoak. Gizartean egin beharreko aktibitate ekonomikoa da lana, eta ordaindutakoa eta ordaindugabea izan daiteke.

Enplegua soldatapeko aktibitatea da. Soldatarik gabeko langile gehienak emakumeak dira. Etxeko lanak, edota zaintza lanak horren adibide garbia dira.

**Emakumeen eta gizonezkoen lanak bereizten dira oraindik?**

Bai, diferentzia handia dago. Joan zen hamarkadan, ordura arte mutilen ikasketak zirenetan sartzen hasi ziren neskek. Berdintasunerako pauso garrantzitsua izan zen, eta, gainera, espediente akademiko hobeak lortzen dituzte neskek. Lan mundurako pausoa ematean, baina, ingeniari posturako enpresariak nahiago dute mutila, espediente akademiko txarragoa eduki arren. Neskek, gainera, goizago independizatzen gara, eta gurasoen etxetik irteteko edozein lan onartzen dugu. Neska ingeniari asko ikusi ditzakegu supermerkatuko kutxazain lanetan.

**Emakumearen Nazioarteko Eguna egoteak, zer esaten dizu?**

Pena handia ematen dit. Urteko egun guztietan hartu behar da emakumea kontuan, baina diseinu patriarkala alde batera utzi eta emakumeen baloreak kontuan hartzen dituen ekintza ekonomikoa sortu arte, beharrezkoa izango da.

**Krisia amaitzeko aukerarik ikusten duzu?**

Gobernuak Barne Produktu Gordinari bakarrik begiratzen dio krisiari buruzko datuak ematen, eta hori ez da errela. Egoera zaila da, eta 2011n oraindik langabeziak gora egingo du. Ezin da esan krisia gainditzeko ari garela, langabeziak gora egiten duen bitartean.

**“2011n langabeziak oraindik gora egingo du”**

## MIRIAM LIZARRALDE ingeniarria



Miriam Lizarralde Ingeniarria da. Batxilergoa amaitu zuenean “mutilen munduan” sartzea erabaki zuen, eta Uniibertsitaterako bidea hartu beharrean, heziketa zikloetan sartu zen. IMHn diseinu alorreko zikloa egin zuen lehenik, eta, ondoren, Txandakako Ingeniaritza ikasketak egin zituen. Bi enpresatan egin zituen lan praktikak, eta, bigarren enpresan bertan jarraitzen du lanean.

Eskopetak egiten dituzten enpresa da. 25-30 langile inguru daude, eta horietatik bost bakarrik dira emakumeak. Urtebete inguru darama Miriamek gizonen artean lanean, eta arazorik izan ez badu ere, hasieran harrিতa begiratzen ziotela aitortu du: “Administrazioan emakumeak ikustera ohituta dago jendea, baina alor teknikoetarako ingeniaria neska izateak harrিতa egiten ditu”.

Hala ere, lankideek ondo hartu dutela adierazi du, eta ez omen du inolako arazorik izan. Soldatari dagokionean ere, bera dagoen enpresan ez dute neska eta mutilen artean diferentziarik egiten.

Miriamek esperientzia ona izan du orain arte. Gainera, lanean hasteko garai ona tokatu zitzaioela adierazi du: “Enpresa guztietan zegoen lana, eta batzuetan gainera, neskek eskatzen zituzten”. Krisiaren eraginez, egoerak okerrera egin du, baina bera momentuz, jardunaldi osoz ari da lanean.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Igogailua sotora arte, ez!

Sinuose elkartetik ez dugu ikusten igogailuak sotora arte jaitsi behar duenik. Ongi deritzogu Kultur Etxean igogailua jartzeari. Argi dago jende helduak eta elbarrituen ezintasunak igogailuaren beharra agerian uzten dutela, baina sotora arte izatea? Sinuostetik ez dugu argi ikusten Kultur Etxea eta sotoa igogailuaren bidez batzeko beharra dagoenik. Sotoak beste sarrera bat erabiltzen du, eta elbarrituek edo ezintasuna daukatenean badaukate bertara pasatzeko aukera (beharbada sarrera hau konpondu beharko litzateke, eta ez igogailua sotoarekin konektatu). Obra egingo balitz, argi dago bertan kultur ekintzak antolatzen ditugunoi kalte egingo ligukeela. Espazioa kenduko lukete, eta, era berean, jende kopuru handia izatea mugatuko luke. Kontzertu txikiak antolatzeko balio du, baina 50 pertsona baino gehiago badaude, ahaztu. Ziur gaude bertako erabiltzaile gehienek gurekin bat egingo dutela. Igogailua sotora arte? zertarako?

Ez dugu politika edo politikariekin inolako hartu-emanik eduki nahi. Batek daki zergatik dauden bi proiektu igogailua egiteko, bata bestea baino logikoagoa eta merkeagoa denean. Baina argi geratu dadila guk ez dugula sotoa modifikatu dezaten nahi, eta behar adina gutun edo idatzi egiteko prest gaudela sotoa bakean utzi dezaten.

Sinuose, Elgoibarko kultur elkarteak

### Alan Garciari

Gemma Agirregomezkorta nauzu, eta Cusco hirian eta inguruetan lan egiten dihar-

dut urte dezentetan. Horregatik, elgoibartar-cuscotarra sentitzen naiz.

Ziur nago ez zarela nirekin gogoratuko. Gurpildun aulkia erabiltzen dut, eta, behin, Avenida del Sol delako kalean, gure begiek bat egin zuten. Beharbada, nire begirada zorrotzaz ohartuko zinen, izan ere, ahalegin handia egin behar izan nuen zutari buruz dudan iritzia ez adierazteko.

Zortzi egun dira nire Cusco maitagarria iritsi naizela, eta uholde izugarrien ondorioak ikusita, mina sentitzen dut. Halere, saiatzen naiz nire semebitxien aurrean hori ez adierazten eta irribarre egiten. Bitartean, zuk erabili duzun zorritzarreko "no ha sido para tanto" esaldiak ez dauka kalifikaziorik. Alan Garcia, zeinen dorpea zure aitortza!

Nahi ala ez, Cusco Peruko eskualderik garrantzitsuena da. Turismoak ere ondo frogatzen du izaten dituen bisitekin, eta horrek, noski, eragina dauka Gobernuaren diru-sarreretan, baina egia esan, oso gutxi inbertitzen du eskualde horretan. Horregatik guztiagatik, eta bere esanahi historikoagatik, zure begietako ninia izan beharko litzateke, baina...

Agian, jarrera horrekin zigortu nahi duzu hain boto gutxi eman dizun eskualdea. Bada, zerbaiterako balio badizu, esango dizut botoa eman dizutenean zure gezurrak sinetsi dituztelako bozkatu zaituztela, nire *compadreetako* batek bezala, eta, orain, noski, damututa daude.

Oso ondo iruditzen zait Haitin edo Txilen kaltetutakoei milaka dolar eramatea. Izan ere, biktima guztiak behar dute laguntza, baina neure buruari galdetzen diot nolatan ahazten dituzun zeure herrikoak.

Badirudi hemengo heriotzek ez dutela eraginik zugaran. Zer diozu Pisaceko Mama-sitei buruz? Ez al dizu minik ematen? Edo, agian, beste batzuek pentsatzen duten bezala, *cholas de mierda* batzuk direla uste duzu?

Alan Garcia jauna, egia da zorritzarrez lehendik ere mendilerroko biztanleok ez zintugula gehiegi maite, baina orain, askoz ere gutxiago. Adierazi nahi dizut parez pare izango nauzula eta Andetarrei animoa bidali nahi diet bihotz-bihotzez maite ditudan Euskara eta Qechua hizkuntzetan.

Gora Cusco! ¡Kausachun Qosqo!

Gemma Agirregomezkorta (Peruko presidenteari idatzitako eskutitza)

## OHARRA

Martxoaren 19a jai eguna dela eta, datorren asteko **BARREN** astekaria eguenean jasoko duzue. Aldizkarian argitaratzeko iragarkiak, zorion agurrak edo eskutitzak martitzen eguerdira arte jasoko ditugu.

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIARI Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel MAKETATZALEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZALEAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Justo Arriola, Arkaitz Inureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Arkaitz Irureta



Justo Arriola

O i n -  
guan ere  
Praileait-  
zetik da-  
tok noti-  
zia, edo noti-  
zia eza! Elgoibar-  
ko portu baten  
abizena eduki arren,

baillara honen alde ezer gutxi  
egin jua Kultura sailburutan Mire-

nek. Ostantzian ere hanka sartze bat bestiarren atzetik, hola  
gogoratuko juat nik lotsa gabeko euskaltzaiña.

Gobernu aldaketia etorri dala entzun bai, baiña tamalez lehengo  
lepotik burua. Unescok, arkeologuek, Praileaitzen Lagunak taldeko  
kultur munduko jendiak eta SOS Praileaitzokuok ere gauza bera eska-  
tzen juagu, bermatu dedilla hegal osuaren iraupena!

Halere, hemen, lagun batek diñuan bezela, kultura hispano-turkia-  
rrak euren agintariak aukeratzen jaittu. Nik hori baino nahixago najuan  
Europa kulturalaren eredia segitzia, baiña Europa ekonomiko-zapal-  
tzaillia besterik ez juek nahi, Ameriketako Estatu Batuen isla.

## “Europa ekonomiko-zapaltzaillia besterik ez juek nahi”

Hortik bakarrik ulertu leikek Zeleta-Amenabar harrobiaren jabari  
kosta legia urratu izana *barkatzia* eta, aldiz, koba bermatzeko indem-  
nizatu bihar dala aitzakixia jartzia. Dana alde bai lehen eta baita orain  
ere zementuaren *lobby*-xek.

Oiñ dala gutxi la Vézère ibai ertzian ibilli giñanian Lascaux, Rouffig-  
nac eta abarrak ikusten, franko-kantabro eta hispano-turkiar arteko al-  
derik igarri al huan, Justo?

Akordatzen han Ekainberriren berri ematen juen kartelekin? Ziur  
nagok erreplikak Europa kulturaleko jende gehixagoren bisittia jasoko  
dabala hispano-turko-kañitarrena baiño. Holan besterik ezin leikek  
ulertu hemengo korrupziua eta kultura eza.

Hamengo kobazuluak itxitta edo utzikerixaga-  
tik abandonata daguazela-eta Dordoñako mamu-  
tak, bisontiak, zaldixak... ikusi ahal izatia ez dok izango  
ahizten erreza. Europa hotz haretan hedatu eta millaka urte  
iraun jua kultura harek aztarna apartak laga jaittuan: haitzetako ar-  
tia eta euskarri eruangarrietan egindako tresna eta venusak.

Oiñ arte gune euskal-pirinioar-akitaniarrian emakumiaren 27 iru-  
ditxo azaldu dittuk. Benetako dibinidadiaren lehenengo irudixak zi-  
ttuan, jainkosa bizixa, ez ideia hutsa: Ama Haundixa. Izan ere, Ama-  
lurra, emakumia, emankortasuna adoratzen juen, bizitzia sortzeko  
gai dalako. Nundik datorkigu ba Mari, jeinu nagusixa?

Baiña Goi Paleolitotik hona eurixa bota ahala egin jok. Hamen  
hurrian 70 bat koba dauaz eta apenas jakixagu barruan zer daguan,  
dirurik ez zagok kromagnon hárek lagatakua arakatzeko. Hormigoia-  
ren “kultura” nagusittu dok oin. Praileaitz babesteko 65 metrora lu-  
baki bat proposatu juek, hi. Harrobiko leherketa etengabiak baiño ez  
dittuk falta gure historiaren kontrako gerria irudikatzeko.

## “Hamen hurrian 70 bat koba dauaz eta apenas jakixagu barruan zer daguan”

Gero eta garbixago dagok zertarako nahi jaittuen Astigarribiako  
errepide berrixa, Lasturkua zabaltzia, Sasiolako hormigoi plantia eta  
Mutrikuko kai haundixa. Ba, Jaizkibelgo superportua eraikitzeko  
bihar diran millioika tona harri Lasturtik atara eta kamioietan garraia-  
tu deixezen. Zelako triskantza datorkixen baillara edar hóneri eroke-  
rixa hau geratzen ez badogu.



Elgoibarko Udalak



Eskola publikoetako jangeletako langileek astean bi aldiz greba egitea erabaki dute, lan baldintza hobek eskatzeko.

## Zuenean izan du eraginik jangeletako langileen grebak?



**Maria Boyer**  
39 urte, dendaria

Nire umea ikastolan dabil, beraz, ez dit eragin jangeletako langileen grebak, baina nire ahizpari bai. Denda daukagu, eta gure lanbideak malgutasun apur bat eskaintzen digunez, nahiko ondo moldatu da, baina jende askorentzat sekulako buruhaustea izan da.



**Juliana Garcia**  
24 urte, zaintzailea

Ez. Umeak oraindik txikiak dira, eta etxera eramaten ditugu bazkalzera. Datorren urtean, akaso, jangelara joango dira, baina oraindik ez. Langileen eskubidea da greba egitea, baina kalte handia sortzen diete etxetik kanpo lan egiten duten gurasoei.



**Iratxe Alonso**  
40 urte, etxeakoandrea

Ez, gure alabak etxean bazkalzen du-eta. Nahiago izaten du etxera etorri, eguerdian telebista apur bat ikusteko. Nire ahizpari, baina, eragin dio grebak. Baserritik etortzen da egunero, eta nahikoa lan izan du aste honetan. Lanean dauden gurasoentzako egoera zaila da.



**Lurdes Condori**  
32 urte, garbitzailea

Ez. Nik orduka egiten dut lan, eta nire senarra langabezian dago, beraz, umeak etxera eramaten ditugu bazkalzera. Biok lanean egongo bagina, jangelan laga beharko genituzke umeak, eta nola edo hala moldatu beharko genuke. Ez da erraza.

### ESKERTZA



## CARMEN SANCHEZ ECHABURU

2010eko martxoaren 4an hil zen, 82 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### ESKERTZA



## TEODOSIA IRIONDO GARATE

*Eskerrak San Lazaro egoitzako langile eta arduradunei.*

Hileta elizkizunak Elgoibarko San Bartolome parrokian izango dira, zapatuan, martxoak 13, arratsaldeko 19:00etan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





**Zapatuetan kristalezko botilak lagatzen dituzte Mekanika atzeko parkean:**

“Gazte asko egoten dira zapatuetan botiloia egiten Mekanika atzeko parkean, eta gero, kristalezko botilak han lagatzen dituzte; asko apurtuta, gainera. Domeka arratsaldean kristalez beteta zegoen parkea. Umeekin joaten gara askotan, eta, benetan, oso arriskutsua da. Ingurune hori gehiago zaintzeko eskatuko nuke”.



**Mintxetako atletismo pista zaharkituta dago:** “Mintxeta inguruan obrak egiten hasi dira. Petri bota dute, eta erreka ondoko bidea apurtzen hasi dira. Nire ustez obra horiek ez dira beharrezkoak. Bide hori ondo zegoen, eta korrika egiteko oso egokia zen. Biguna eta atsegina, eta euria egiten zuenean, oso gustura egiten zen korrika lokatz artean. Nire iritziz, Mintxetako atletismo pista berritzeko behar handiagoa dago. Zaharkituta dago, eta euria egiten duenean putzuak sortzen dira. Ez du ura ondo xurgatzen, eta labaindu egiten gara”.

**Liburutegiko ordenagailuetan Interneteko webgune guztiak libre daude?:**

Guraso batzuk kezkatuta daude gai horrekin. Udal Liburutegiko ordenagailuetan edozein webgune ikustea libre dela konturatu dira, eta euren webgune batzuk gaztetxoentzat arriskutsuak direla uste dute. BARRENEk Udal Liburutegiko arduradunekin hitz egin du, eta Interneteko erabilera araututa dutela adierazi dute haiek: “13 urtetik behrako gaztetxoak heldu baten zaintzapean ibili behar dute liburutegiko ordenagailuetan, eta 13 urtetik gorakoek idatzizko baimena ekarri behar izaten dute, gurasoek sinatuta”. 1995ean jarri zuten Internet liburutegian, eta ordutik asko ikasi dutela gaineratu dute: “Lehen ordenagailuak ezkutuan egon behar zutela uste genuen, baina gaur egun bista-bistan daude. Edonork ikusi dezake umeak zein webgunetan dabilzan”.

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgolbarzarra.com](mailto:barren@elgolbarzarra.com) / 943-74 41 12

ESKERTZA

**JUANA OSTOLAZA ZABALETA***“Elorrixa”*

2010eko martxoaren 8an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

**ANTONIO FERNANDEZ BALBIN**

2010eko martxoaren 2an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Kultur Etxeko igogailua eskaileraren zulotik jartzearen alde agertu da Eusko Alkartasuna

Bi proiektuak “sakonago” ikertzeko eskatu dute alderdikideek

**K**ultur Etxeko igogailua eskaileraren zulotik jartzea egokiagoa dela uste du Elgoibarko Eusko Alkartasunak. EAJk, aldiz, Kultur Etxearen ertz batetik egitearen aldeko apustua egin du. Igogailuaren kokapenak, beraz, polemika piztu du Udal Gobernuan, eta Eusko Alkartasunako alderdikideek bi proiektuak mahai gainean jartzeko eta ikerketa sakonagoa egiteko eskatu dute.

Hala ere, igogailuaren kokapenarekin baino gehiago, erabakia hartzeko moduarekin agertu da haserre EA. Legealdi Planaren jarraipen batzordean bozkatu zuten igogailua non jarri, eta EAJ-PNV eta PSE-EEK ertzetik egitearen aldeko botua eman zuten. Alfredo Etxeberria alkatearen iritziz, igogailua erditik egiteak sotoan kalte “handiagoa” eragingo luke, eta sotoaren erabilpena oztopatuko luke. EAren ustez, ordea, ez litzateke horrelakorik gertatuko. Sotoa “berdin-berdin” erabiltzeko aukera ikusten dute igogailua erditik egin arren, eta, gainera, erakusketak gela [euren ustez eraikineko gela nagusia] ez litzateke txikituko.



### Erditik egitearen abantailak

Eusko Alkartasunak igogailua Kultur Etxeko eskaileraren zulotik egiteari abantaila gehiago ikusten dizkio. Beraien azaldutakoaren arabera, erakusketak gela ez litzateke txikituko, solairuetan ez litzateke zulorik egin beharko, Kultur Etxean argi natural gehiago sar-

tuko litzateke, ganbara erabiltzeko aukera emango luke, eta merkeagoa izango litzatekeela uste dute, obra gutxiago eskatzen duelako.

Igogailua ertzetik jartzeak, bestalde, Gazte Informazio Gunea lekuz aldatzea ere ekarriko du, eta horren ondorioz, hitzaldi gela txikituko da.

## Hilabeteko epean zabalduko dituzte Idotorbeko eta Arriagako elkarteak



San Pedro-Idotorbeko elkartea Aste Santu ostera zabalduko dute, eta Arriagakoa aste bat edo bi barru.

Idotorbe-San Pedron solairu bakarreko eta 300 metro koadroko eraikina egiten ari dira, probalekuaren eta frontoiaren ondoan dagoen zelaian. Lan horretarako 248.000 euroko diru-laguntza jasoko du Udalak Eusko Jaurilaritzatik, eta Aldundiko Nekazar Garapenerako sailetik beste 72.000 euro.

Arriagako elkarteko obrak, bestalde, eguraldiaren ondorioz atzeratu egin direla adierazi du Rikardo Garate hirigintzako zinegotziak. Detaile txiki batzuk falta dira lokala prest egoteko. 85.000 euroko inbertsioa egin dute Udalak (%60) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (%40), San Antolinen, A-8 autopistako zubipean dagoen lokala berritzeko.



## Lekua **Ubitarte eta Antonio Arrillaga**



Ubitarteko eta Antonio Arrillaga kaleko obrak irailerako amaituko dituzte. Santa Ana eta San Inazio kaleetan egindako lanen ildo beretik egingo dituzte bi zona hauetako berrikuntzak. Espaloiak eta zoria berritzeaz gain, Antonio Arrillaga kalean dauden oztopo arkitektonikoak kenduko dituzte. Bi lan horiek 600.000 euroko aurrekontua izango dute, eta Udalak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuko dituzte, erdibana.

## Berbia **Lapurreta**

Orbea taldeko Beñat Urain txirindulariari bizikleta ostu zioten eguazten eguerdian, Madala inguruan. Entrenatzen ari zirela, elurra hasi zuen, eta Iriondo tabernan sartu ziren, kafe bat hartzera. Bizikletak kanpoan laga zituzten, eta irtetean bizikleta bat falta zela konturatu ziren. Karbonozko Orbea Orca bizikleta urdina da. Atzeko gurpila berezia da, eta potentziometroa dauka. Norbaitek zerbait ikusi badu, deitu dezala 687 306 330 edo 943 744 112 telefono zenbakira.

## Irudia **Emakumearen Eguna**

“Gora emakumeon borroka” lemapean egin zuten elkarretaratzea herriko zenbait lagunek, martxoaren 8an. Hogei bat lagun inguru bildu ziren Plaza Handian emakumeen eskubideak aldarrikatzeko, eta, ondoren, “txikiteo feminista” egin zuten. Horrez gain, sexismorik gabeko ipuin kontaketak izan dira Udal Liburutegian, eta baita, *Patchwork* erakusketa Kultur Etxean.



## Izaro Etxegibel izango da **BARRE**ko publizista berria

Izaro Etxegibel elgoibartarra izango da aurrerantzean BARREN astekariko publizista berria. Martxoaren 1ean hasi zen lanean, eta Eneritz Lazkano zumaiaarrarekin batera, BARREN astekarirako publizitate lortzea izango da bere lana.



## **Boluntario izateari buruzko hitzaldia, eguaztenean**

Gaszte Informazio Guneak antolatuta, boluntario izateari buruzko hitzaldia izango da eguaztenean. Bekak, auzolandegiak, lankidetzak programak edota gobernuaren kanpoko erakundeek ematen dituzten aukerei buruzko informazioa emanango dute, besteak beste. Hitzaldia 19:00etan izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## **Ekonomia eta finantzari buruzko jardunaldia**

Ekonomiari eta finantzei buruzko jardunaldia antolatu du Debege-sak eskualdeko enpresentzako. Besteak beste, enpresaren errentagarritasunaren eta likideziaren xehetasunak, kobrantzak eta ordainketak, eta diruzaintza aurrikuspenak landuko dituzte. Edukia azaltzeaz gain, ariketa praktikoak ere egingo dituzte jardunaldian parte hartzen dutenek. Datorren eguaztenean izango da jardunaldia, 15:00etan. Ikastaroetan izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko, 943 820 110 telefonora deitu edo [ekintzaille@debege-sa.com](mailto:ekintzaille@debege-sa.com) helbide elektronikora idatzi daiteke.

## BESTE SARBIDE BAT IZANGO DU MENDAROK

**Bixuete, Irabane eta Andikoetxe baserrien inguruan egin nahi dituzten hirigintza lanen inguruko proiektua aurkeztu zuen joan zen astean Mendaroko Udalak. Garagartza eta Mendarozabalerako sarbide berria eraiki, eta Erramoneko industriagunea handitzea jasotzen du planak, besteak beste. Era berean, 66 etxebizitza eraikiko dituzte Andikoetxe eta Irabane arteko lurretan. Udalak apirilaren 26ra arteko epea jarri du, herritarrek euren iradokizunak aurkeztu ahal izateko.**

**Ainara Argoitia**

**M**endaroko herrigunera autoan sartzeko ate bakarra dago gaur egun. Sarbide bakarra herrigunera zein ospitalera iristeko: *Zubi Berria*. Egunerokoan, zubiak ondo eusten dio atzera-aurrera guztiei, baina nekez egongo da arriskurik ikusten ez dionik. Izan ere, zubian edozer gertatuko balitz edo larrialdi handiren bat balego, herriaren zati handi bat kolapsatzeko arriskua handia litzateke. Hori dela eta, Mendaroko Udalak aspaldian dauka ibilgailuentzako beste zubi bat eraikitze asmoa. Horretarako, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean zenbait aldaketa egin dituzte. Joan zen astean aurkeztu zuen proiektua Miguel Angel Irazabalbeitia arkitektoak, argazki eta irudiez lagunduta.

Proiektu horren arabera, zubi berria Bloques Etxeberria enpresa dagoen lekutik Iturgain baserria dagoen mendi hegalerara egingo da, eta puntu horretan errotonda bat eraikiko dute. Errotonda hortatik bi bide irtengo dira: bata, Erramoneko industriagunera, eta bestea, ospitalera. Hala, ospitalerako saihebidetara moduan erabili ahal da bide berri hori, eta Andikoetxe eta Irabane baserrien artean igaroko da. Bide berri horri esker, trafikoa dezente arinduko da herriko sarrera nagusian, eta

horrenbestez, zarata ere gutxituko da. Zubi berria eraikitze obren gastuak Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko ditu bere gain.

### Lau etxe bloke eraikiko dituzte Andikoetxe eta Irabane artean, 66 etxebizitza guztira

Plan horretan jasotakoaren arabera, Irabane baserri zaharra eraitsi edo bota egingo dute, eta lur eremu horretan etxebizitzak egingo dituzte. Lau etxebizitza bloke eraikiko dituzte –66 etxebizitza guztira–, antzeko ezaugarrietakoak. Hasiera batean, Andikoetxe baserria eraisteko aukera ere aztertu zutela aitortu zuen joan zen astean Miguel Angel Irazabalbeitiak, baina horren beharrik ez da izango azkenean. Era berean, Bixuete baserria ere dagoen lekuan geldituko da. Izan ere, babestutako baserria da Bixuete. “Inork ez daki garbi zerk egiten duen horren berezi eta zergatik den

babestu beharrekoa, baina hala jasota dago aurreragoko plan orokor batean. Hala ere, babes neurri txikia da, oinarri-oinarrizkoa”, azaldu zuen Irazabalbeitiak. Baserri zaharrari bere horretan eutsiko diote, baina atzeko aldea, bere garaian abeletxe moduan erabili izan zen teilapea, eraitsi egingo dute. “Garbi dago eraikin berria dela, gerora eraikitakoa, eta hori bota egingo da, babesak ez diolako horri eragiten”, nabarmendu zuen arkitektoak.

Bixuete ondoko lurra industriagunea handitzeko erabiliko dira, eta baserria bera berritu egingo dute, beste erabilera bat emateko. Bixuete zer izango den esateko goizegi bada ere, etorkizunean taberna edo jatetxea izatea aurrekusi dute planean.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko beste aldaketa nagusiak Garagartza auzoari eragingo dio, hain justu ere, Deba ibaiak eta Kilimon errekek bat egiten duten lekuari. Trenbide ondoan dagoen Axier enpresa Bixuete baserri ondoko industriagunera aldatuko dute lekuz, edo bestela eraikin horren balioa ordainduko diote jabeari. Era horretan, herrigunetik aterako dira enpresa guztiak eta industriaguneetan pilatu. Hala, gaur egun Axier enpresa dagoen leku hori libre geldituko da, eta aisialdirako gune berde bat eraikiko dute hor. Bide ba-





*Mendaro, airetik hartutako irudi batean. Kolore horiz Bloques Etxeberria arteko bidea, eta urdinez, handik aurrera egin nahi dituzten zubi berria eta ospitalera arteko "sahiesbidea".*

tez, Kilimon erreka Deba ibaira iristen den puntu horri "beste itxura bat" emango diote, gaur egun amaitu gabeko obra baten itxura ematen diolako hormigoizko hormak.

### **Iradozikunetarako epea**

Mendaroko Udalak lan egutegi bat ze-

haztu du. Hilaren 3an aurkeztu zuten jende aurrean Hiri Antolamendurako Plan Orokorriari egin nahi dizkioten aldaketak jasotzen dituen proiektua, eta herritarrek apirilaren 26ra arteko epea izango dute proiektu horren inguruko iritziak emateko. Udalak iradokizun guztiak aztertzeko konpromisoa hartu du. Planoak ikusi nahi dituenak, be-

raz, apirilaren 26ra arteko epea izango du. Horretarako, bulego ordutegi bat jarri dute: astelehenetik barixakura, 11:00etatik 13:00ak arte. Nolanahi ere, proiektuaren nondik norako guztiak Internetez ere kontsulta daitezke, Mendaroko Udalaren webgunean, hirigintza atalean: [www.mendaro.net](http://www.mendaro.net)



*Bixuete eta Irabane base-rien inguruan egin nahi dutenaren irudia.*

## Pilar ikastetxean egingo duten zahar etxearen lehenengo irudiak aurkeztu ditu Udalak

2011n hasiko dituzte lanak, eta 2014rako amaitzea aurreikusten dute

**J**oan zen astean aurkeztu zituen Udalak Pilar ikastetxean egingo duten zahar etxearen lehenengo irudiak. Hiru kubo handi izango dira proiektuaren ezaugarri nagusiak, eta zahar etxearekin batera, eguneko zentroa, aparkalekuak eta udal bulegoak egingo dituzte.

ZMZ asociados SL enpresak irabazi du proiektua idazteko lehiaketa. 11 lan aurkeztu zituzten lehiaketara, baina Izaskun Larzabal udal arkitektoak eta Foru Aldundiko arkitekto batek osatutako epaimahaiak ZMZ enpresaren proposamena aukeratu dute. "Garestiena, baina teknikoki lanik onena" dela adierazi dute. 172.782 euroko kostua edukiko du lan horrek, eta lau hilabeteko epea izango dute amaitzeko. Elgoibarko alkateak azaldu duenez, ekipamendu berri horietan eskainiko diren zerbitzuak "gehiago zehaztea" izango da hurrengo pausoa. Irailaren 1etik aurrera Udala izango da eraikinaren jabea, eta, ordurako, gune horretan egingo dena ondo zehaztuta egon behar dela azaldu du alkateak.



*Urasandi auzoak dituen zenbait arazo konponduko ditu proiektuak: auzorako sarrera-irteera konpondu, eta aparkaleku eta aisialdirako gune berriak sortuko dituzte.*



*Hiru kubo handi izango dira proiektuaren ezaugarri nagusiak.*

### Urasandi auzorako irtenbideak

Zaharren beharrak asetzeaz gain, Urasandi auzoak dituen zenbait arazo konponduko ditu proiektuak, udal agintarien ustez. "Aparkalekuen arazoak, auzorako sarrera-irteerena eta aisialdirako guneena arindu daiteke", Alfredo Etxeberría alkatearen esanetan. Eraikin bat jarduera-ekonomikora bideratzeko asmoa dutela ere aurreratzen du.

Jarritako epeak betez gero, 2011n hasiko dituzte Pilar ikastetxean zaharrentzako etxea egiteko obrak. Alkateak esan du, okerrik ezean, eta krisiak lagatzen badu, hiru urteren bueltan bukatuko dituztela obrak: 2014rako. Gestioari dagokionez, jabea Udala izango den arren, erabilera Diputazioari lagako dio urte batzuetarako.



Otsailean...

## JAIOTAKOAK



**Miren Aranburu Arrizabalaga** Otsailak 17  
Ramon eta Maria



**Oinatz Aitzibar Mendikute** Otsailak 24  
Eneko eta Gorane



**Greta Malvaso Fernandez** Otsailak 19  
Emilio eta Amagoia

**Erik Redondo Goenaga** Otsailak 13  
Gorka eta Paloma

**Vega Lego Amaiz** Otsailak 23  
Manuel eta Laura

**Eneritz Rodriguez Arano** Otsailak 23  
Alberto eta Lia

**Naroa Rodriguez Ibañez** Otsailak 26  
Javier eta Ainara

**Danel Garaizabal Mujika** Otsailak 28  
Imanol eta Miren

## HILDAKOAK

**Segundo Raigoso** • 71 urte • Otsailak 1  
**Juan Carlos Palacios** • 63 urte • Otsailak 2  
**Jose Mari Betelu** • 77 urte • Otsailak 7  
**Pilar David** • 90 urte • Otsailak 8  
**Lola Endeiza** • 95 urte • Otsailak 9  
**Teresa Unamunzaga** • 77 urte • Otsailak 22  
**Mari Cruz Valenciano** • 88 urte • Otsailak 24  
**Ignacio Azpiazu** • 80 urte • Otsailak 25

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua  
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK  
NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**  
  
**Erietxe  
zentruetan  
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua BARREneko erredakziora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik 2 euro kobratzen dugu.

ESKERTZA

## MARIA GARATE ERRAZKIN



*Argi bat itzali da  
hemen lurrean  
berri bat piztu da,  
han, zeru ederrean  
beti jarraituko duzu  
gure bihotzean.  
Ez agurrik, ez adiorik  
Gero arte baizik.*

2010eko martxoaren 4an hil zen, 87 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## Hotzari aurre egin, eta jende ugari batu zen domekan Mendaroko Aingeru Guardako jaietan

Jendetza handia batu zen domekan Mendaroko Aingeru Guardako jaietan. Eta ez alferrik. Izan ere, aurtengo jaiak bereziak izan dira. Zortzi urte joan dira Plazako jaiak galdu zirenetik, eta, aurten, plazatarren seme-alabek hartu dute auzoko jaiak berreskuratzeko ardura. Bezperatik prestprest zituzten gauza guztiak, eta domekan ezker ez zuen hutsik egin. Eguraldi hotzari aurpegi ona jarri, eta erruz hurbildu zen jendea Plazara. Hala, antolatzailleek “balorazio positiboa” egin dute, eta eskerrak eman dizkiete jaiak antolatzten lagundu dieten guztiei. “Datorren urtean jarraitzeko indarra eman digu domekakoak, eta ideia berriak ere sortu dira”, adierazi dute.

Usadioa den legez, mezak hasi zuen Plazatarren eguna. Ondoren, herri kirolez gozatu ahal izan zuten ermita ingurura batu zirenek. Fausto Mugerzak jardun zuen aizkoran, Juango Agirregabiriak eta Unai Salegik, trontzan, eta bukatzeko, Juango Agirregabiria aritu zen txinga ero-



aten. Atzapar bakarrarekin esku banatan 50 kiloko txinga bana hartu, eta sekulako erakustaldia eman zuen. Agirregabiriaren saio horrek hauspotuta, plazan zirenetako batzuk ere animatu ziren txingak har-

tzera. Kaskara batzen, berriz, bi herrikide lehiatu ziren: Jon Larrañanaga eta Gortzon Zulaika, eta beteranoenak irabazi zuen, Jonek. Idoia Arriola eta Maite Olazabalek girotu zuten jaija.

## Auresku eta Soinu Zahar txapelketa jokatuko dute asteburu honetan, Elgoibarko Herriko Antzokian



Auresku eta Soinu Zahar txapelketa jokatuko dute bihar eta etzi, Elgoibarko Herriko Antzokian. Nafarroa eta Gipuzkoa osotik etorritako dantzariak lehiatuko dira, tartean hemeretzi elgoibartar: Saioa Marcos, Maialen Loiola, Leire Morales, Aitor Asenjo, Nora Bastida, Alaitz Egaña, Leire Urzainki, Iraitz Gonzalez, Miren Astigarraga, Andrea Arregi, Itziar Aldalur, Ane Espilla, Naia Makazaga, Arantxa Ferreiro, Leire Astigarraga, Nerea Badiola, Leire Melgosa, Nerea Solozabal eta Goizeder Etxeberria.

Bi saio izango dira. Bihar, 7 eta 11 urte bitartekoen txanda izango da, eta domekan, berriz, 11 eta 15 urte bitartekoena. Biharko saioa 16:30ean hasiko da, eta 32 neska-mutil ariko dira. Domekako, berriz, 11:00etan hasiko da, eta 41 gaztetxo lehiatuko dira guztira. Hiru txapelketa jokatu dira orain artekoan, eta elgoibartarrek bat irabazi egin dute, eta beste batean, bigarren egin dute.

# Atxutxiamaiak egitarau oparoa antolatu du Aste Santuko oporraldirako

Martxoaren 18an amaitzen da izena emateko epea

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiak aisialdi taldeak hainbat ekintza eta irteera antolatu ditu Aste Santurako, eta interesatuek martxoaren 18a arteko epea izango dute izena emateko. Izenemateak Elgoibarko Izarra kultur elkartearen egingo dira, eta elkartearen bazkideei merkeago egingo zaie. Argibide gehiago nahi izanez gero, 943 741 626 telefono zenbakira deitu daiteke.

## Atxutxikokoak

- Norentzat: Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleentzako ekintza ugari antolatu dituzte, Herri Eskolan.
- Noiz: Martxoaren 29, 30, 31 eta apirilaren 6, 7, 8 eta 9.
- Ordutegia: 9:30-13:00
- Prezioa: 40 euro


## Atxutxiekintzak

- Norentzat: Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren maila artekoentzat.
- Martxoaren 29an ginkana egingo dute, eta martxoaren 31n, berriz, Ermuaranbide-Sallobentara irteera. Azken horretarako, King Kongen batuko dira 11:00etan, eta 18:30etan itzuliko dira.
- Prezioa: 5 euro.

## Atxutxiegonaldia

- Norentzat: Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren maila artekoentzat.
- Zarautzera irteera, lau egunerako. Apirilaren 6, 7, 8 eta 9an. Zarautzen, hondartzara joango dira, eta hainbat tailer egingo dituzte. Tren geltokitik irteerako dira apirilaren 6an, 11:10ean, eta apirilaren 9an itzuliko dira, 18:00etarako.
- Prezioa: 60 euro.

## ‘El club de las mujeres invisibles’ antzezlanaz izango da gaur Herriko Antzokian



Vaiven antzerki taldeak *El club de las mujeres invisibles* antzezlanaz eskainiko du gaur Elgoibarko Herriko Antzokian, 22:15etatik aurrera. Fernando Bernuesek zuzendu du lana, eta Jordi Galceranek, Aizpea Goenagak, Arantxa Iturbek, Juan Maiorgak, Oscar Terolek eta Susana Terolek idatzitako hainbat istoriotan oinarritutako antzezlanaz da. Maria Angeles Zabala Taupada taldeko aktore elgoibartarrak ere parte hartuko du. Emakumeek ezkutuan bizi eta jasaten dituzten hainbat konturen inguruko antzezlanaz da.

Ikuskizunean zehar, gainera, zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango da. Iñaki Salvadorrek jardungo du pianoa jotzen, eta Ainara Ortegak jarriko du ahotsa eta biolina. Sarre-rak 8,5 euro balio du, eta Herriko Antzokian bertan ere erosi ahaliko dira. Gazte txartela dutenak sei eurotan sartu ahal izango dira.

## Jon Eugi kazetari eta idazle elgoibartarraren ‘Piraten uhartea’, braileraz

Jon Eugi kazetari eta idazle elgoibartarraren *Piraten uhartea* gazte-txoentzako eleberria braileraz argitaratu dute. Martin Legarreta marinel gaztearen eta Juan Agirreandia *Paisaia* pirata ontziko kapitainaren ibilaren inguruko da istorioa. Erein argitaletxeak argitaratu zion liburua, eta oso harrera ona izan du orain arte. Lehenengo edizioa aspaldi agortu zen.

## BARRENEK badauka estilo liburua

Hamazazpi urteren ondoren, estilo liburua dauka BARREN astekariak. Kazetarietzako lan tresna da estilo liburua, eta zuzen eta argi idazteko oinarritzko arauak jaso ditu bertan. Era berean, elgoibarko euskara noiz eta nola erabili behar den ere zehaztu du, eta horretarako, Badihardugu elkartearen arauetan oinarritu da. Oier Narbaiza kazetari eibartarrak idatzi du estilo liburua, Andres Alberdi eta Jesus Mari Makazagaren laguntzarekin.

## Hip-hop eguna antolatu dute martxoaren 20rako

Hip-hop eguna antolatu dute bihar zortzirik, Elgoibarko Olaizaga kiroldegian. Maria Escobedo kiroldegiko hip-hop irakasleak oinarritzko pausoak erakutsiko ditu, 10:30etik aurrera, doan. Ondoren, 11:30etik 13:00ak bitartean, Iruñeako Breathles konpainiako irakasle Maialen Mendesek masterclassa emango du. Bi saioak amaitu ostean, 13:30ak aldera, bazkaltzeko batuko dira izena emandako guztiak kiroldegian bertan. Bazkariak 15 euro balio ditu, eta masterclassak, beste horrenbeste. Interesatuek martxoaren 17a arteko epea dute izena emateko, eta horretarako 679 237 611 telefono zenbakira deitu dezakete edota email bat idatzi honako beste helbide honetara: [mrym\\_80@hotmail.com](mailto:mrym_80@hotmail.com)



## Alcorta eskubaloi taldeak seniorretako bigarren nazional mailarako igoera fasea jokatu du

Liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan eskuratu dute igoera faserako sailkapena

Sanlo elkarteko Alcorta taldeak bigarren nazional mailarako igoera fasea jokatu du. Liga amaitzeko bi jardunaldi falta direla lortu dute sailkapena, matematikoki. Senior mutilen taldeak sei taldeko ligaxka jokatu du martxoaren 27tik aurrera. Hiru talde gipuzkoar, bi bizkaitar eta arabar bat sailkatu dira igoera fasea jokatzeko, eta lehengo biek edukiko dute mailaz igotzeko aukera.

### Leire Arizmedi, Espainiako promesetako entrenamenduetan

Ikus taldeko Leire Arizmendi, bestalde, Espainiako promesen mailako entrenamenduetarako deitu dute. Selekzioaren kontzentrazioa Madrilan egingo da; Getafen, apirilaren 5etik 9ra. Jokalari elgoibartarrak Gipuzkoako eta Euskal He-



rriko eskubaloi selekzioetan ere jokatu du.

Kontzentrazio horretan parte hartzen

duen Sanloko bigarren partaidea izango da Leire Arizmendi; orain dela hiru urte Ane Urainek ere parte hartu zuen-eta.

## Concepto Createch areto futboleko taldeak irabazi beharra du bihar, mailaz igotzeko



Concepto Createch taldeak Laskorain liderraren kontra jokatu du bihar, Olaizaga kirolegian. Liga amaitzeko hamar jardunaldi falta dira, eta elgoibartarrak hirugarren postuan daude, zazpi puntura. Taldeko arduradunek esandakoaren arabera, biharko partidaren garaipenak bakarrik balio du, "bestela liderrarekin daukagun aldea asko handituko da". Concepto Createch taldea ez dagoela sasoi onenean adierazi dute, eta, herritarren babesa eskatu dute. Norgehiagoka 16:00etan hasiko da.

### Pilota Eguna jokatu dute bihar, ikastolako frontoian

Pilota Eguna ospatuko dute bihar, Elgoibar Ikastolak antolatuta. 6tik 13 urtera bitarteko 64 umek hartuko dute parte. Partidak 10:30ean hasiko dira, Ikastolako frontoian, eta eguerdi aldera arte iraungo du jaialdiak.

### Eskiko Pierra Menta proban hartuko dute parte Arkaitz Iruretak eta Iker Leonardok

Arkaitz Irureta eta Iker Leonardo elgoibartarrek mendi eskiko Pierra Menta proba garrantzitsuan hartuko dute parte datorren asteburuan. Alpeetako Areges-Beaufortain (Frantzia) ibarrean izango da proba, eta lau etapatan 10.000 metroko desnibelak gainditu beharko dituzte parte hartzaileek. Proba horretan parte hartzea ez da erraza, eta bi eskiatzaile elgoibartarrak "pozez zorrotzen" daudela adierazi dute.



# Korrikalari elgoibartarrak bikain aritu dira Transgrancanaria proban

Jon Revert bosgarrena izan zen, 92 kilometroko proban

Hiru elgoibartarrek hartu zuten parte Transgrancanaria lasterketan Joan zen asteburuan, eta bikain aritu dira, gainera. Jon Revertrek eta Manolo Ramosek 92 kilometroko proba egin zuten, eta Eduardo Uribe, 123 kilometrokoan.

Jon Revertrek eta Manolo Ramosek elkarrekin egin zuten 92 kilometroko proba. Uste baino gogorragoa egin zitzaiea aitortu dute, baina, hala ere, primeran moldatu ziren, eta postu oso onak lortu zituzten: Jon Revertrek bosgarren postuan amaitu zuen proba, 12:00:50 denborarekin. Manolo Ramos, berriz, sailkapen nagusiko seigarren postuan iritsi zen helmugara, 12:00:50 denborarekin, eta senior mailako lehena izan zen.



Transgrancanariako sailkapen nagusiko 142. postuan sartu zen helmugan Eduardo Uribe. 27:8:45 denbora behar izan zuen, 123 kilometroko ibilbidea egiteko.

## Jon Ugartetxea, Euskadiko txapelkun zesta puntan

Jon Ugartetxea mendarorak irabazi du Euskadiko Zesta Punta txapelketa, junior mailan. Iban Aretxabaleta lagun hartuta, 22-35 irabazi zioten Zumaiako bikoteari. Txapelketak zortzi partida izan ditu, eta mendarorak guztiak irabazi ditu. 16 urteko gazteak Berriatuako eskolan jokatzeko du zesta puntan, eta datorren domekan probintziarteko txapelketan hartuko du parte, Bizkaiko ordezkari moduan.

## Hamar elgoibartarrek hartu zuten parte Lilatoian

Joan zen domekan jokatu zen Lilatoia Donostian, eta inoiz baino emakume gehiagok hartu zuten parte. 1.694 lagun iritsi ziren helmugara, eta tartean hamar elgoibartar.



### SAILKAPENA

Izena	Denbora
Lourdes San Martin	23:11
Pilar de La Lama	25:59
Lore Bereziartua	26:11
Eunate Aranzadi	26:20
Nerea Sanz	27:48
Mari Carmen Leon	30:46
Marijo Garmendia	31:41
Amelia Almeida	31:48
Marian Arriola	33:18
Mapi Fernandez	33:18

## EMAITZAK

### ARETO FUTBOLA

Concepto Createch Elg. 4 – Euskalduna 1

### ESKUBALOIA

Kukullaga 22 – Tecnifuelle Elg. 21 (Inf. nes.)  
 Bera Bera. 28 – Grupo Eibar Elg. 27 (Jub. nes.)  
 Errotaberri 41 – IMH Elg. 17 (Kad. nes.)  
 Alkorta Elg. 39 – Aloña Mendi 24 (Sen. mut.)  
 Aloña Mendi 34 – Beristain Elg. 34 (Jub. mut.)  
 Lauko Elg. 43 – Zarautz B 21 (Kad. nes.)  
 Urola. 32 – Pneumax 36 (Kad. mut.)  
 Txarriduna Elg. 10 – Arrate B 33 (Inf. mut.)  
 Bankoa Elg. 26 – Aloña Mendi 15 (Inf. mut.)  
 Aloña Mendi 18 – Aterpe 25 (Inf. nes.)  
 Astigarraga Elg. 14 – Arrate Amaña 10 (Inf. nes.)  
 Ikus Elg. 32 – Aiala C 11 (Inf. nes.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 13

16:00 Concepto Createch – Laskoarian

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 13

13:00 Elgoibar – Arrasate (Inf. txiki)

16:30 Haundi – Zamudio (3. maila)

Domeka, 14

10:00 Elgoibar – Bergara (Ale.)

12:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Erreg. nes.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 13

9:00 Astigarraga Elg. – Pakita Altzariak (Inf. nes.)

10:15 Aterpe Elg. – Udarregi (Inf. nes.)

11:30 Pneumax Elg. – Urnieta (Kad. mut.)

17:30 Tecnifuelle Elg. – Urdaibai (Sen. nes.)

19:00 Beristain Elg. – Urola (Jub. mut.)

Domeka, 14

10:30 IMH Elg. – Aiala Zarautz (Kad. nes.)

## Kirol kanpusa antolatu du Kirol Patronatuak Aste Santurako

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Kirol Kanpusa antolatu du Aste Santurako. Martxoaren 29tik 31ra, eta apirilaren 6tik 9ra izango da. 6tik 12 urtera arteko umeek, hainbat kirol praktikatzeko aukera izango dute egun horietan. Patronatuko bazkideek 45 euro ordaindu behar dituzte, eta gainerakoek 50 euro. Olaizaga kiroldegian eman daiteke izena, martxoaren 22ra arte. Informazio gehiago 943 744 415 telefonoan.

## LANA

### ESKAERA

- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest, as-teburu eta jai egunetan, edo interna moduan. Klinika laguntzaile titularekin. ☎ **943 748 209**
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako prest. Orduka, egun erdiz edo egun osoz, astelehenetik barixakura. ☎ **680 753 166**
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **652 147 019 / 687 371 060**
- Emakume euskalduna pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **660 511 781**
- Mutila kamarero lanetarako prest. Esperientziaduna. Papelak ditut. ☎ **671 405 061**
- Neska euskalduna umeak zaintzeko edo beste edozein lanetarako prest. ☎ **676 482 121**
- Ordukako lanen baten bila nabil: portalak garbitzen, nagusiak zaintzen edo tabernak eta elkarteak garbitzen aritzeko prest. ☎ **699 609 190**
- Interna lan egingo nuke. Presazkoa. ☎ **660 651 569**
- Bertako gizona (42 urte) edozein lan egiteko prest (gurpil aulkia duen gizonak zaintzen). ☎ **661 225 149**
- Neska gaztea umeak zaintzeko prest. ☎ **676 482 121**
- Mutil gazte edozein lanetarako prest. ☎ **681 228 427**
- Neska gaztea umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo dendari izateko prest. ☎ **699 477 611**

- Neska gaztea lanerko prest. Umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Erreferentziak. ☎ **686 420 642**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo haurrak eta nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎ **686 234 612**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo haurrak eta nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎ **638 344 377**
- Emakumea edozein lanetarako prest. Goizeko 10:00etatik aurrera, gauaz ere bai. ☎ **618 052 967**
- Edozein lan egiteko prest. ☎ **638 520 765**
- Interna edo orduka lan egiteko prest. Etxeetan lan egiteko, sukaldari laguntzaile edo zerbitzari moduan aritzeko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **618 096 628**
- Neska gaztea haurrak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **657 142 376**
- Igeltsero talde bat edozein erreforma egiteko prest. ☎ **650 987 612**
- Gizonezkoa, bigarren mailako ofiziala, edozein lanetarako prest. ☎ **606 612 834**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **648 603 029**

### ESKAINNTZA

- Jatetxe batek sukaldari laguntzailea behar du. ☎ **943 743 196**
- Jatetxe baterako sukaldari laguntzailea behar da. ☎ **943 121 262**

### ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

#### ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Lokal txikia alokairuan, San Roken. ☎ **667 838 858**

- Etxea salgai Pedro Muguruzan. Hiru logela, egongela, sukaldea (altzariekin), 70 metro koadroko terraza eta garajea. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **685 724 553**
- Conilen (Cadiz) apartamentu zoragarriak alokatzen dira. Garajeekin. ☎ **653 733 457**
- Etxea salgai Santa Klara kalean. Sukaldea, egongela, hiru logela eta komuna. Igogailua eta ganbara dauzka. Dena kanpora begira. ☎ **664 585 369**

### GARAJEAK ETA MOTORRA

- Preparatutako BMW autoa salgai. M3 E36. 99koa, urdina 18 pulgadataro llantak, Galper frenoak, ITVa oraintxe pasata. 85.000 kilometro. ☎ **616 266 212**
- Citroen C5 HDI 110CV Premier salgai. 2004 urtekoa, 75.000 km. 8.000 euro. ☎ **635 208 887**
- Santa Ana kalean, Ametsa parean, garajea alokagai. ☎ **615 787 857**
- Santa Ana kalean marradun garajea alokagai, kotoxa edo furgoneta bat sartzeko egokia. ☎ **646 966 198**

### BESTELAKOAK

- Otsailaren 26an urrezko pultsera galdu nuen Er-muaranbide kaletik Toletxegaineko tren geltokira bitartean. Balore handikoa da. Saritu egingo da. ☎ **943 743 578 (Juli)**

## OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

## MODULOAK

Lana / Bestelakoak

**Astebete : 5 euro**

**2 aste : 8 euro**

**3 aste : 10 euro**

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

**Astebete : 10 euro**

**2 aste : 17 euro**

**3 aste : 25 euro**

### ESKERTZA

## JOAQUIN URANGA UNANUE

*“Haizea bezala joan zara gure ondotik  
nahiz eta urrutira joan guk sentituko zaitugu gurekin”*

2010eko martxoaren 5ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





• Zorionak, **Dune**, gaur 6 urte egin dituzulako. Muxu pila bat, etxekoan partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Bixen!** Atzo 2 urte! Muxu potolo asko, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Unai**, bihar 3 urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Jon**, martxoaren 15ean 5 urte egingo dituzulako. Milaka patxo, etxekoan partez.



• 6 urte bete ditu gure **Jonek**. Zorionak, printzesa! Etxekoan partez.



• Zorionak **Haizea**, bihar 3 urte potolo egingo dituzulako. Muxu txiki asko zuretzako.




• Zorionak, **Nekane**, domekan 11 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat, familiakoan partez.



• Zorionak, **Ane**, gaur zure eguna delako. Familiakoan, eta bereziki, Helene eta Joneren partez.



• Zorionak, **bitxo**, zure 6. urtebetetzean. Etxekoan, eta bereziki, Alainen partez.



• Zorionak, **Mikel**, urtebete egin duzulako. Muxu potolo bat!



• Zorionak, **Aitor eta Xabier**, 7 eta 5 urte egin dituzuelako. Ondo pasa Gasteizen! Muxu handi bat!

## OSPAKIZUNAK KINTOAK



Azken urteotako ohiturari eutsiz, aurten ere sagardotegira irteera egin dute Sallobente elkarteko bazkideek. Alorrenea sagardotegian bazkaldu, eta ondoren, parranda "txiki" bat egin zuten Astigarragan. "Datorren urtean beriz", esanez itzuli dira.



• Zorionak, **Xabier**, gaur 39 urte egin dituzulako. Gurasoen, emaztearen, eta alaba Naroaren partez.



• Zorionak, **guapa!** Gero eta moñoñoagoa zara!

**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.



## OKINDEGIA

14 domeka EIZAGIRRE

### FARMAZIAK

- 24 ORDUZ**  
 12 Etxeberria (*Santa Ana*)  
 13 Fernandez  
 Goizez, Etxeberria (*Erros.*)  
**14** Fernandez  
 15 Yudego  
 16 Zabaleta  
 17 Etxeberria (*Errosario*)  
 18 Ibañez  
 19 Fernandez

### Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
 Tel: 943 751 638

### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
 Garagarza (MENDARO)  
 Tel: 943 756 142

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
 Tel: 943 751 384

## INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



## 12 barixakua

### Batzarra

**18:00** Jubilatuen egoitzako batzar nagusia  
 Jubilatuen egoitzan.

### Erakusketa

**19:00** 'Patchwork'  
 Haizeak antolatuta, *Patchwork* erakusketa izango da. Kultur Etxeko erakusketa gelan.  
 Domekan izango da erakusketa bisitatzeko azken eguna (12:00-14:00).

### Antzerkia

**22:15** 'El club de las mujeres invisibles'  
 Vaiven produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

## 13 zapatua

### Kirola

**10:30** Pilota Eguna  
 Ikastolako ume eta gazteek jokatuko dute pilotan. Ikastolako frontoian.

### Dantza

**16:30** Aurreku eta soinu zahar txapelketa  
 Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta, 7 eta 11 urte bitarteko dantzariak hartuko dute parte. Herriko Antzokian.

## 14 domeka

### Dantza

**11:00** Aurreku eta soinu zahar txapelketa  
 Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta, 11 eta 15 urte bitarteko dantzariak hartuko dute parte. Herriko Antzokian.

### GAZTELEKUKO EKINTZAK



#### BARIXAKUA 12

Argazki rallya 17:00

#### ZAPATUA 13

Elgoibar Koloretan 17:00

#### DOMEKA 14

Zinema, 'Philadelphia' 17:00

#### MARTITZENA 16

Bitxigintza 17:00

#### EGUAZTENA 17

Txoko pribatua 17:00

#### EGUENA 18

Sukalde txokoa 17:00

### LUDOTEKAKO EKINTZAK



#### BARIXAKUA 12

Eskulanak 17:00

#### ZAPATUA 13

Txuri Urdinera 17:30

#### ASTELEHENA 15

Musika jolasak 17:30

#### MARTITZENA 16

Psikomotrizitatea 17:00

#### EGUAZTENA 17

Eskulanak 17:30

#### EGUENA 18

Parabxutarekin jolasak 17:30

### «Todos están bien»

13, zapatua: 19:00/22:15

14, domeka: 19:00

15, astelehena: 21:30

Estatu Batuak-Italia, 2009. Zuz.: Kirk Jones. Akt.: Kate Beckinsale, Robert De Niro, Drew Barrymore. 100 min.

Adineko gizon alargun batek bost

seme-alabak bildu nahi ditu mahai beraren inguruan. Baina guztiak huts egingo dute. Orduan, bidaia luze bat hasiko du, haietako bakoitzari bizi den lekuraino.



## 16 martitzena 17 eguaztena

### Tailerra

18:30 Sexualitate tailerra

Haizeak antolatuta, sexualitate tailerra izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Hizlaria: Arantza Alvarez.

### Hitzaldia

19:00 Boluntario izan nahi?

Gazte Informazio Guneak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Kontzertua

19:30 Musika eskolako talde instrumentala

Inazio Bereziartua musika eskolako talde instrumentalak kontzertua eskainiko du. Musika eskolako auditorioan.



## Gure gomendioa

### 'Patchwork' erakusketa

Martxoaren 14ra arte, Kultur Etxean

Haizea emakume taldeak *Patchwork* erakusketa antolatu du. Oihal zatiekin eginiko lanak dira. Beste artista batzuen artean, bi elgoibartarren lanak daude ikusgai erakusketan; Isabel Azkuerenak eta Mertxe Lapedrizarenak. Erakusketa domekara arte egongo da zabalik. Gaur eta bihar, 19:00etatik 21:00etara, eta domekan, 12:00etatik 14:00etara.



# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Internet + e-administrazioa

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-3-15  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: 943 257 991

### Oinarrizko brikolajea

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Kantsultatu  
Hasiera data: 2010-3-15  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: 943 748 271 edo 943 257 986

### Enpresen errentagarritasuna

Norentzat: Debabarreneko enpresentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-3-17  
Non: Eibarren  
Izena emateko: 943 820110

### Erretzeari uzteko ikastaroa

Norentzat: Erretzaileentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-3-23  
Non: Eibarren  
Izena emateko: Kantsultatu

### Etxeko PCaren mantenua

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-4-12  
Non: Eibarren  
Izena emateko: 943 208 444 (Santiago Iruetagoiena)

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71

### «Niko eta izarretarako bidea»

14, domeka: 16:30

### «Moon» (Ongarri zinekluba)

18, eguena: 21:30

Erresuma Batua, 2007. Zuz.: Duncan Jones. Akt.: Sam Rockwell, Kaya Scodelario, Matt Berry, Malcolm Stewart, Benedict Wong, Kevin Spacey. 97 min.

Etorkizun hurbil batean, astronauta bat bakartuta egongo da hiru urtez. Bere kontratua amaitzean denean sekretu garrantzitsu bat jakingo du. Filma Sitgesko jaialdian saritu zuten.

## Erretratu zaharra



1985

Aste honetako erretratua Nikolas Zulaikak lagatakoa da. 1985. urtean aterata dago, Mendaron, Garagartza auzoko Arboleta tabernan. Maiatzaren lehenengo egun batez atera zuten argazkia, Langileen Nazioarteko Egunean, eta argazkiko gizonak hamaiketakoa egiten ari dira. Arboleta taberna aspaldi itxi zuten, eta, gaur egun, taberna bakarra dago Garagartza auzoan: Landa erretegia. **Ezkerretik eskumara:** Patxi Larrañaga (†), Nikolas Zulaika, Justo Lazkano (†), Eugenio Osoro (†), Balerio Alvarez, Jose Zabaleta (†) eta Isaac Vazquez.

## Gure berbak Hiztegia: interjekzio batzuk

◆ **HAINBESTIANI:** Onartzeko moduan, gaizki ez. Elkarriketetan, galdera bati erantzuna emateko erabiltzen da. *–Ze moduz zabizte, ba? –Bueno, hainbestian! Hainbestian ibili: gaizki ez ibili, onartzeko moduan ibili. Antzera erabiltzen da **Nolabaitten ibili.***

◆ **HANGO...!:** Harridura adierazteko erabiltzen da. *Atzera, Gernikatan zihar, zela ero hala, pasau, eta hango desastria! Horko...! ere bai, erabilera berean: Horko zaratia!*

◆ **HARA!:** Ezustekoa adierazten duen interjekzioa. *Hara! Etorri dok, barren, gure Patxi! (Hara) hor ba!* ere bai: *–Gallenguak ointxe hasi dia, jaixekin. Atzo zian txapliuak botatzen. –Bai, bai. Ha(ra) hor ba!*

◆ **HAUNDIXA IZAN:** Harridura edo ezustea azaltzeko erabiltzen da. *Haundixa dok, ba! Haundixa do(k) pa! Oiñ ere zoeze gaizki eiñ al dot?*

◆ **HAURA:** Interjekzioetan ere asko erabiltzen da: *Haura...! Haura zuan bronkia, haura! / Haura jan!*

◆ **HOR KONPONI:** Mintzakideari axolagabetasuna adierazteko erabiltzen da. *Hik sartu nahi izen dok lantegi horretan, eta hor konpon! Hor konpon, Mari Anton! Ikus **Alla kuidaos!** eta **Alla pelikulas!***

◆ **HORIXE!:** Aurretik esan dena berresteko erabiltzen da. *–Aurten ere jua haiz Mugerza krosera? Hoixe (juan naizela)! / Indurain izan don euskal kirolaririk onena. Hoixe baietz!*

◆ **HORRATTIOKAN:** *Hor diru mordua ahorrauko'zue, horrattiokan!*

◆ **HURRIK EMAN ERE EZI:** Ezta gutxiagorik ere! *Lengo al-dian erreza, ointxe eztaka lengo konturik basarrixak, oiñ eztaka, basarrixan eztao hurrik ere. / Hala ere, galdu ein tza-ban aurrian. Gero sakia hartu zaban pelota batekin, eta akabo. Ezin hurrik eman. **Ezta hurrik eman ere!***

Jesus Mari Makazaga





# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14-16 behea  
☎ / Faxe: 943 74 31 16  
www.biena.es  
info@biena.es

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Lehoak

Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxe: 943 74 73 12  
www.fjodoso.euskalnet.net

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 25 45 22

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxe: 943 53 18 25

### Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76/608 774 032



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04

### Lanusta

Etxe barruko erreformak  
☎ 636 375 323  
www.lanusta.com



## Lorezaintza

### Pagoa Ioradenda

Nafarroa plaza 1  
☎ 943 74 01 89  
☎ 688 631 307



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia  
☎ 943 74 30 94



## Sarrailagintza

### Giltzak

Arragueta, 3 (Elbar)  
☎ 943 701 391  
www.giltzak.com



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87





# OSASUN GIDA



## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

*Kemen Belardenda. Naturopata,  
Iridiologoa eta Homeopata.*

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)  
San Bartolome, 29 - Tel: 943 744 031  
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## *Sanatana Dharma Yoga Elkarte*

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

*Mendaro:* Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

## *Pakene Ongizate Integraleko Zentru Berria*

(Azterketa biologikoa eta osteopatikoa, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarra, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasanazintasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

## MASAJISTAK

*Victoria Iraegi*

(Esku-terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) - Tel.: 943 740 770  
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

## PODOLOGOAK

*Oinberri*

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

## *Iñigo Arrillaga Yudego*

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurria egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behe

Tel: 943 741 645

Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

## FISIOTERAPIA

*Ainhoa Fisioterapia*

Jausoro, 6 behe.

Goiz eta arratsalde.

Tel.: 943 531 953

669 565 745

*Andoni Schmidt Larrañaga*

*Exerako Fisioterapia*

Jende nagusia, neurologia, errehabilitazio orokorra, masajeak. Ekipo portatila. Ordua eskatu.

Tel.: 689 926 016

## ORTOPEDIAK

*Itziar Sarasketa*

San Frantzisko, 12

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Tel: 943 74 35 62

## OPTIKAK

*Ikus optiko-optometrista*

San Bartolome, 10

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 743 734

## *Uzuri*

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 740 359

## HORTZ KLINIKAK

*Irale*

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 177 134

[irale@irale.com](mailto:irale@irale.com) - [www.irale.com](http://www.irale.com)

## *Leku eder*

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behe.

Tel: 943 530 053 - [lekueder@infomed.es](mailto:lekueder@infomed.es)

## *Beitia Arriola*

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behe

Tel: 943 531 869

